

Ate irekiak: 750 haur baino gehiago izan ditugu gure instalazioetan

Agurain, Ribabellosa eta Izoria ura zaintzen adituak diren haurrez bete dira egunotan.

Asteotan, gure eguneroko dinamika eten dute galdera xelebreek eta "Izeko Tomasa eta bere ur jolasa" izenekoarekin jolas egiteko gogo handiek.



Urbideren hezkuntza-programa, 5 gaketan

1. 20 urte baino gehiago ikaskuntza partekatzen

Orain bi hamarkada baino gehiago ireki genituen lehen aldiz ateak ikasleek uraren hiri-zikloa ezagutzeko aukera izan zezaten: nola iristen den etxera, eta nola itzultzen den garbi ibaira. Tanta bakoitzak axola diola ulertzeko bidaia da.

2. Urak erakutsi egiten duen tokia

Aurten, 750 eskola-umek baino gehiagok bisitatu dituzte Izoriako ur-araztegia eta Ribabellosako eta Aguraingo araztegiak. Jolasen, esperimientuen eta jakin-minaren artean, ura zaintzea garrantzitsua dela ez ezik, dibertigarria ere izan daitekeela ikusi dute.

3. Adin guztietarako

Programa Lehen Hezkuntzara eta DBHra iritsiko da, talde bakoitzaren arabera egokitutako jarduerekin, urari buruz ikastea beti esperientzia praktikoa eta eraldatzailea izan dadin.

Eskerrik asko gure lurraldeko ikastetxeei, urtez urte elkarrekin partekatzen dugun bidaia hau posible egiten baitute. Urbiden, elkarrekin ikasten jarraitzen dugu, tantaz tanta.

4. Zer helburu lantzen dugu?

Kontsumo arduratsua sustatzea, jakin-min zientifikoa piztea eta etorkizun jasangarriagoarekiko konpromisoa sorraraztea dira gure helburuak.

5. Helburu jakinak dituen sormena

Parte hartu duten ikasgelek koadernotxoak, onlineko jolasa eta Urakusketa lehiaketa izan dituzte. Azken horretan, eskola-komunitate osoarentzako inspirazio-iturri bihurtu diren horma-irudiak eratu dituzte.

